

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Gogoz kontra egindako maisulana

VATIKANO HIRIA, 1508KO UDABERRIA. Michelangeloen Buonarroto lehena pintzelkada eman zuen Kapera Sixtinoan, Jauregi Vatikanoe-tan Sixto IV.a Aita Sainduaren aginduz hamarkada batzuk lehenago eraikitako eliza xumean.

Urte batzuk lehenago, 1473an, Sixto hil eta gero haren tokia hartu zuen Julio II.ak kapera zaharberritzea erabaki zuen. Bobeda pitzatua zegoen eta sabaia bertan behera erortzeko arrisku handia zegoen, lur mugimenduen ondorioz. Horrenbestez, Buonarroto maisua kontratatu zuen sabaia konpondu eta apaintzeko. Ordura arte sabaia urdin argia zen eta urre koloreko izarrak zituen. Artistak ez zuen lan hura onartzeko gogorik, baina pontifizearen aginduek pisu handia zuten eta, azkenean, 1508ko udaberrian, duela 500 urte, enkarguari baiezkua eman behar izan zion. Bazekien lan gaitza zuela aurrean —edo, hobe esanda, gainean—; sabaia oso altua zen, eta hori gutxi balitz zati batzuetan makurra zen. Orotara 3.000 metro koadro estali beharko zituen. Michelangelok aldamiorearen gainean pasa zituen lau urte, laguntzailerik gabe. Izaera are gehiago ilundu zitzaion, eta artikulazioak gogortu.

Ahalegin izugarria egin zuen 1512ko Domu Santu egunean lana bukatu zuen arte. Emaizta

Kreazioa zen, Genesiak deskribatzen zuen bezala, eta bederatzia eszenatan banatua. Eszena nagusia

Adamen Kreazioa zen; bizitza sortzeko ahalmena duen Jainkoaren eskua ez zen gai berria artean, baina ordura arte inoiz ez zen horrelako indarrez adierazi. Ia-ia elkar ukitzen duten hatzen irudia ikono unibertsala da gaur egun.

Jainkoak bezala, Michelangelok ere atsedean hartu zuen bere Kreazioa amaituta. Baina hogeitau urte geroago, berriro igo zen Kapera Sixtinoko aldamiara. Orduko hartan, Pablo III.ak agindu zion lana. Aita Sainduak Azken Juizioa irudikatuko zuen freskoa nahi zuen. 60 urte beteta, artistak jardun nekagarriari ekin zion.

1541ean amaitu zuen fresko erraldoia eta emaitza, berriro, apurtzaileak zen. Imajina daitezkeen jarrera guztietan zeuden gorputz biluziak, mugimenduen festa eroan. Eskandalua berehalakoa izan zen: dohatsuak eta kondenatuak nahasirik egoteak eliza-

ren haserrea ekarri zuen, eta Jesus eta Maria biluzik margotu izana ere ez zen onargarria. Azkenean, Pietro Aretino idazlearen aholkua kontuan hartuta, biak “jantzi” egin zituzten.

Baina obraren jeinutasuna ez zuten estali. Buonarroto, desgogora baina gogotik lan egin da, maisutasunaren eta edertasunaren paradigma bihurtu zuen Erromako eliza txiki hura. ■



Goian, Adamen Kreazioko irudia, Kapera Sixtinoan. Behean, Azken Juizioa.

ARRASTOAK

MARCELINOREN GOL historikoak 1964ko Eurokopa eman zion Espainiako futbol selekzioari. Garai hartan NO-DOKo irudiek eta esatariak goleko pasea Amanciok, Real Madrileko jokalariek eman ziola zioten. Duela aste batzuk, ordea, TVEk NO-DOKoaren irudiak manipulatu zeudela eta pase hori Chus Peredak eman zuela onartu du, La Vanguardia egunkariak lehenago esandakoa baieztatuz. Espainiako kate publikoak prestatuko erreportaje laburrean, arazo teknikoek egotzen zieten “aka-

tsa”. Baina beste ahots batzuek, Clio historia aldizkariak, esaterako, zentsura frankistaren ekintza izan zela diote. Ustezko arrazoia? Pereda F.C. Bartzelonako talde katalaneko jokalaria zela, eta ez ziotela protagonismorik eman nahi. Gogoratu behar da Peredak berak sartu zuela partidako lehen gola, eta huraxe dela gaur gaurkoz Eurokopako finaletan inoiz sartu den golik goiztiarrena (bosgarren minutuan egin zuen gola). Azkenik, Peredari merezitakoa eman diote 44 urte geroago.



Marcelinok gola sartu zuen uneko irudia. Helbide honetan, jokaldiari buruzko bideoa:

<http://es.youtube.com/watch?v=-Ja5xFcGEUs>